

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gordexolako Udala****Osoko Bilkuraren eskumenak Alkatezari eskuordetzea, Herri Onurako Mendien baso aprobetxamenduak esleitzeko kontratazio espedienteak direla eta.**

Udalbatzak 2017ko urriaren 26ko ohiko osoko bilkuran Herri Onurako Mendien baso aprobetxamenduak esleitzeko kontratazio espedienteak direla eta, Osoko Bilkuraren eskumenak alkatezari eskuordetzeko erabakia hartu zuen, jarraian transkribatzen den bezala:

«Osoko Bilkuraren eskumenak Alkatezari eskuordetzea, Herri Onurako Mendien baso aprobetxamenduak esleitzeko kontratazio espedienteak direla eta. Lizitazioaren oinarria 207.000,00 eurokoa da (BEZa kanpo).

Erabaki honen bitartez emandako eskuordetzak prozedura izapidetzeari datzekion ahalmen guztiak barne hartuko ditu, hirugarrenak ukitzen dituen egintza administrati-boen bidez ebazteko ahalmena barne.

Eskuordetzak erabakia hartzen den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak. Halere, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.»

Jakitera ematen da dagozkion ondorioetarako.

Gordexolan, 2017ko urriaren 26an. — Alkatea, Ángela María Eguía Liñero